

ANTTON DUESO

PUNKI

1989-2008



desclée

1989ko martxoan argitaratu zen Punkiren lehen istoriotxoa Ipurbeltz haurrentzako komiki aldizkari mitikoan. 2008an izan zuen itxiera data aldizkariak. Nobelaturik argitaratu zituen, pertsonaia protagonista harturik, bost liburu 1997 eta 1999 urteen artean Roger izeneko argitaletxeak -dagoeneko desagerturik dena-. Arrakastaz oharturik, eta Punkik euskal munduko haurren artean izandako transzendentzia ikusirik, Bilboko **Desclee** argitaletxeak bost liburu haiek berreditatzea erabaki zuen 2007 eta 2009 urteen artean. Berriz ere jaso zuen Punkik adin guztietako irakurleen baiezkua. Hori dela eta, aurrera pausoa eman eta istoriotxoan aukeraketa eta bost nobelen argitalpenari bide eman diogu, antologia bat denaren baitan. Ez dira bildu Punkiren abentura zoro guztiak, baina bai horien eredu diren hainbat eta hainbat, pertsonaiak iraun zuen ia hogeitun urte haietan jasandako garapenaren erakusgarri.

Antton Dueso

Aurkibidea

| | |
|---|------------|
| Muki berdearen sekretua | 9 |
| Herriko festak ziredeen...! | 33 |
| Uf, uf, hondartzara noa geroo...! | 37 |
| Elurra mara, maraaa...! | 41 |
| Bihotzez maite zaitukut...! | 45 |
| San Markos euri bizi, urte osoa gerez! | 49 |
| Kamarerooo! | 53 |
| Galtzontzilo galduaren bila | 51 |
| Urte askoan gandorra kaskoan | 81 |
| Me gusta er furbooo...! | 85 |
| San Balentin, geziak al pil-pil | 89 |
| Ei! Goizean behin! | 93 |
| Mosquera euskaltegia | 97 |
| Artzai buru zuri baat...! Edo bi? | 99 |
| Maitasun arazoren bat | 101 |
| Ehun urte ez da gutxi | 103 |
| Hori bai ipurdial! | 105 |
| Hau pixagura! | 109 |
| Abanderado | 131 |
| Zorrak zor... Eta txakurrak hor konpon! | 133 |
| Puzker gaua | 153 |
| Kontrola | 177 |
| San Martzial | 179 |
| Egunero pilula bat | 181 |
| Akabo Fermin Muguruza! | 183 |
| Dirua zuriu eta kittle! | 185 |
| Atapuera zaharren egoitza | 187 |
| Munduaren akabera | 189 |
| Mende berri on? | 191 |
| Sabino Ikurrinagoitia | 193 |
| Beti korrika! | 195 |
| Presidentearen oporrak | 197 |
| Bazen behin ... | 199 |
| Paskalin kalero-zikin | 201 |
| Oles ezkonberriak! | 225 |
| En fin... Jainkoak eraman zuen Serafin | 227 |
| Txapapotea | 229 |
| Fardeltxo | 231 |
| Ezkon urteurrena | 233 |
| Urte askoan komunontzia kaskoan | 235 |
| Beti arte, Ruben | 237 |
| Mikkaela mela-mela | 239 |
| Hau kakagura! | 241 |
| Limosnatxo bat ... | 243 |
| Ez ez eta ez! | 245 |
| Adiorik ez? | 247 |

MUKI BERDEAREN SEKRETUA



PUNKI

1. Eba Mirentxu Joan zen eguzki bila hondartzara

-Minutu bat! Beste minutu bat eta bagoaz, bera etorri ala ez! -esan zuen aitak.

-Goazen behingogatik! Oporrak problemarik gabe pasatzeko aken aukera dugu! -esan zuen arrebak.

-Jaitsi hadi oraintxe bertan edo gandarretik tiraka jaitsiaraziko hant! -esan zuen

amak ezarria urratu beharrean.

Hogeita hamabost minutu zeraman familiak zain. Hogeita hamabost minutu Ford gorri traste tzarrez bete a oporretara abiatu zain zegoena. Tarte horretan, buiak zirela eta ez zirela, inguruko leihok kuxkuxeroz bete ziren. Batzuek aitaren Txiki Park txapelari egiten zioten barre. Beste batzuek, amaren betaurreko ilunei, Danoneren «eskaintza». Edo arrebak Dena Ehunean denda horietako batean erositako tximeletak harrapatzeko sareari.



Bitartean,
bere gelan,
Punkik zerrenda aztertu zuen
beste behin. Ez zuen ezer ahaztu nahi:

urpeko betaurrekoak, surt ohola, ahate tlotagailua, koltxor-
neta, hondarretako txankletak, kamiseta tropikalak, larrua
belzteko krema, tanga bat aurretik bereziki babestua...



Halako batean jaitsi zen Punki. Hondartzarako traste pila
arrastaka zekarren. Aita txima eskasetatik tiraka hasi zen,
marmarka. Amak eguzkitarako betaurrekoak kendu zituen,
begien bistan zuena sinetsi ezinik.



Arrebak, berriz, barrez ekin zion, intzirika, Punki izorratu nahi zuenean egiten zuen bezala.

-Nora hoo traste tzar pila handi horrekin!

Punkiri min egin zioten aitaren hitz haiek. Hala ere, ez zuen patxadarik galdu eta, irribarrea pixka bat behartu eta udako kanta hari lotu zitzaion:

 Eba Mirentxu Joan zen
eguzki bila hondartzaraaah! 

Hura gehiegi izan zen Punkiren
aitarentzat.

-Horren lerdoak ez bahintz, honez-
kero jakingo huke ez goazela hondartzara,
aitite Bixenteren baserrira baizik!

-Aurten urri antzean gabilza diruz eta baserrian egurastuko gara: aire garbia, bizi sano eta ekologikoa, bertako barazkiak... erantsi zuen amak.

-Manduliak, espatak, behi gorotzak, ardi kaka, oilo zirina...

-gaineratu zuen arrebak.

Mundua gainera erori zitzaion Punkiri. Aire-planotik jauzi egin eta jausgailua irekitzen ez dela konturatzea bezala.

Txiki Parkeko txapela erantzitzi eta esku artean bihurritu zuen.



Hamaikatxo plan egin zuen azken hilabeteetan. Uda zuen gogoan. Eta, orduan, asmo guztiak pikutara.

Aluminosis duen etxea bezala. Gau luzeak hondartza epelean etzanik, maitasun hitzak eta txiste berdeak errebuelta nabarmenak zituen neskaren baten belarriira goxo-goxo esaka: Mediterraneo ur garbian behin eta berriro murgil eginez, azken ligearen bikiniaren goiko partearen balantzari begiratu: arratsaldeak eta arratsaldeak hondartzan etzanda, eguzkitarako krema neskaren baten bizkar tentagarrian zabalduz: sorbaldan beheara aurrena, gerrian hurrena, gero... Pikutara amets denak! Gurasoek ez zuten bihotzik izan! Bost inporta haiei mutiko maitagarriaren borondate ona! Bihotz-gogorak halakoak!

-Joan zintzekete ni gabe ere. Etxea zaintzen geratuko naiz ni. Badakizue udan ez dagoela fidatzerik: lapur asko dabil mundu honetan...

Zirtzart izan zen...! Begiak itxireki baino lehen aitak etxera jaso zion traste tzar pila handi hura. Begiratu gaiztoa egin zion, alkandora lepotik heldu zion Punkiri eta Ford Fiesta gorrian sarrarazi zuen, ez oso gozoro ere. Burua gomazko alfonbraren kontra zuen, hanka bat leihotik aterata, eskuin eskua arrebaren zapatapean... Eta, hala ere, autoak nola arrankatzen zuen eta aitaren boza entzun zuen aldarrika:

-Let's goazen! Baserria zain dugu!





ORDUAN GURE ESQUIAK LOTU ZIREN



HAREN BEGIEK SUGARRAK ZIRUDITEN....



HAREN EZPAIN ZETAZKOKAK NIREEKIN BATU ZIREN..



ETA HANTXE GERATU ZEN BILUZIK NIRE AURREAN...



PUNKI, ESNATU ORDUA DA ETA!



BAINA, BAINA ZER GERTATZEN ZAIZU? EZ DUZU SUGARRIK IZANGO, E?



AKABATUKO DUT! GOXOENEAN NENGOENEAN ESNARAZTEA! BRRR...!!!

LASAI ZAITEZ, ZURE AITA NAIZELAAA...!



BRRR...! GALUR SAN
BALENDIN
MATTALEEN
EGUNA!
BOST AYOLA
NIRI!



IZAN ERE NIK
GOENKALEKO MARLON
BAINO GUTXI-
AGO LIGA-
TZEN
DUT.



AIZU! IKUSI AL
DITUZU GEZI BETZUK
PASATZEN?



OKER ZABILTZA!
EROEI BURUZKO
IPURBELTZA JOAN
DEN HILABETEKOA
ZEN.



ZER EROMEN ETA ZER
OTXOKOARTO! NI KLIPIDO
NAIZ, ETA NIRE
GEZIEI ESKER
JENDEA
MATTEMINDU EGITEN
DA.



BEGIRA
BI
HOEI!



IKUSTEN
DUZU ZER
EGITEN DUDAN
ZURE
ISUNAREKIN?!

EDEE, EDEE,
GEHIAGO
ERREKO ZARA
KARTZELAN,
GOROZLAPIKO!



ZIMP!!

ZIMP!!



GOIZEAN BEHIN

Beso
MARCA: ANTZANE

EDOZEIN ANTZ ERREALITATEAREKIN KOINZIDENTZIA HUTSA DA.

